

Luze gabe beteko dira bi urte 2020ko urtarrilean Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) Nazioarteko Garrantziko Osasun Publikoko Larrialdia deklaratu zuenetik, Txinan eta herrialde mugakideetan SARS-CoV-2 birusa nola garatzen zen eta zer bilakaera zuen ikusita. Birusak mundu osoan jarraitu zuen zabaltzen eta, urte bereko martxoaren 11n, OMEk ofizialki deklaratu zuen mundu-pandemia, artean ere indarrean dena.

Egun, egiaztatu da ia 240 milioi pertsona daudela infektatuta, eta 5 milioi inguru hil dira mundu osoan hurrenez hurren sortu diren askotariko birus-aldaketak direla eta. Espainian, hildakoak 90.000 inguru dira, eta Euskadin 5.000 pertsona inguru. Munduko eragin horiek osasunean eta hala gizartean nola ekonomian ekarri dituzten ondorioak direla eta, gobernuek apustu sanitario, ekonomiko eta sozial pentsaezinak egin behar izan zituzten patogeno horri aurre egin eta ez zabaltzeko.

Arazo horri urgentzia eta gobernantza gehitu zaizkio, aldagai erabakigarriak izan direnak. Osasun-gaietan, koordinazioa eta erantzun-denbora funtsezkoak dira; horregatik, neurriak aplikatzeko orduan astebete edo, are, egun batzuk atzeratzearen ondorioak izugarriak izan dira. Hasiera batean prozesua esponentziala denean, urruntze soziala ezartzean egun batzuk berandutzeak inpaktua izan dezake birusak hartzen duen bidean (CEPR, 2020).

Osasuna eta bizitzak galtzeaz gain, pandemiak Bigarren Mundu Gerratik izan den ekonomia-krisi larriena eragin du. Ekonomia ugari moteldu egin dira eta, ondorioz, ez dituzte beren 2019ko ekoizpen mailak 2022 arte berreskuratuko, goizenera jota. Krisiaren nolakotasunak ez du aurrekaririk: epe laburrera ekonomiari eta osasunari behin eta berriz eraso egiteaz gain, asko luzatuko dira denboran giza kapital erabilgarrian, produktibitatean eta gizarte-jokaeran dituen efektuak, beharbada.

Hala ere, pandemia guztiak noizbait ere amaitu egiten dira. Bada, COVID-19ak bide hori darama; hori ematen du txertaketa maila handia duten gizarteetan gutxienez, baina ez da desagerraraziko horren laster. Aldiz, pixkanaka endemiko bihurtuko dela dirudi. Egoera honetan, urtez urte zirkulatzen eta mututzen, koronabirusak mehatxu izaten jarraituko du zaharrentzat eta afekzio kronikoak dituzten pertsonentzat, edo gaixotzeko joera dutenentzat. Egonkortzean, berriz, oso urriak

izango dira azken 20 hilabeteetan egin duen hilketarik egiteko aukerak. Covid, orduan, etsai ezaguna izango dugu eta, nolabait ere, kudeatzeko erraza, gripea den bezala, behin eta berriz bisita egiten digun hori (*The Economist*, 2021).

Bilakaera horrek eta ikuspegi horrek arrakasta eta atsekabea ematen dituzte aditzera. Arrakasta da pertsona kopuru handia txertatzea eta, infekzioaren etapa bakoitzean, sintoma arinetatik zainketa intentsiboetara, medikamentu berriek neurri handi batean hiltzeko arriskua gutxitu eta birus-karga jaitsi ahal izatea. Gainera, gaitz berri baterako hainbeste txerto eta tratamendu laster sortu eta baimentzea munduko zientziaren arrakasta bat da.

Hala, litekeena da egungo COVID-19aren krisia, oso sakona izan arren, 2008ko Atzeraldi Handiko efektuak baino laburragoa izatea. Gainera, beste inpaktu bat ere izan du: azkartu egin ditu lehendik zetozen joera batzuk, bereziki digitalizazioa (OCDE, 2020) eta horrek dakarren guztia (teknologia eskuratzea, datu berriak erabiltzea, urruneko ikaskuntza eta telelana). Osasun-krisia amaitutakoan, pandemiaren aurreko erronka berdinei egin beharko diegu aurre (klima-aldaketa, energia-trantsizioa eta gizarte- eta demografia-aldaketa).

Hala ere, badago atsekaberako motiborik: krisi hau zerbait okerrago bihurtzeko arriskua, eta ez da txikia. Ikusi dugu uste baino kalteberagoak garela arrisku biologikoaren aurrean, eta aukerak daude etorkizunean ere beste birus bat agertzeko. Gainera, beste arrisku ezezagun batzuk ditugu, adibidez, klima-aldaketaren ondorioak, orain gertatzeko arrisku handiagoz ikusten ditugunak. Ziurgabetasun handiagoak eta depresio-, ezkortasun- edo etsipen-sentimenduak agerikoagoak bihurtu dira (Balluerka *et al.*, 2020).

Krisi honen ondorioz, lau auzi garrantzitsu eta adierazgarri azaleratu dira, monografiko honetako kolaborazio batzuetan aipatzen den bezala. Lehendabizikoak gobernantzarekin du zerikusia. Gatazkak kudeatzeko eredu deszentralizatu edo zentralizatu baten aldeko apustua baino gehiago, egun egiten den bezala, joera da erabaki bateratuak hartzeko ereduak lerratzea, alegia, gobernantza partekatuko ereduak, tesuingurua eta larrialdi-izaera eta egungo krisiaren konplexutasuna kontuan hartuko dituztenak eta, betiere, elkarrekotasun-mekanismo batean oinarrituak (de Lecea, 2021, zenbaki honetan). Hori garrantzitsua da; izan ere, lehen momentu batean estatuko zein estatuz gaineko agintariak martxan jarri dituzte batez ere erresistentziarako eta sistema sanitarioa sendotzeko neurriak, enplegu-galera al bait gehien txikitzeko eta enpresei likidezia hornitzeko, enpresa txiki eta ertainei erreparatu bereziki. Hori izan da Europar Batasunak ezarritako jarduketa-esparrua, herrialdeek jarraitua, zeinek bere erantzun-gaitasunaren eta ezaugarrien arabera. Horrek, baina, asimetriak eragin ditu behin eta berriz eta, askotan, herrialdeen arteko aldeak handitu egin dira.

Bigarrena da gobernuak etorkizuneko krisiei laster eta mailakatuta erantzun beharko dietela, konfiantzari eta gardentasunari eutsiz, betiere. Pandemiak nabarmendu du bi faktore horiek oso garrantzitsuak direla mugimendu-askatasunerako mu-

rrizketa latzen erdian osasun publikoa mantentzeko. Konfiantza eta gardentasuna ezinbestekoak dira pertsonen ezohiko garaiotan ezohiko neurriak ulertu eta bete dituzaten (OECD, 2020).

Hirugarrena da askotariko estatuko eta eskualdeko testuinguruetan ezarritako murrizketen maila eta iraupena, ekonomia-krisiaren bilakaeran eragiten duen faktorea baita, aztertutako gizarte eta ekonomia edonolako dela ere; baina murrizketek irismen eta luzera mugatuak izan behar dituzte, gobernuaren konpetentzia, irekitasun, gardentasun eta ekitateari buruz herritarrek dituzten iritziak ez kaltetzeko (OECD, 2020).

Laugarrena ekonomiaren globalizazioari eta munduko enpresaritzaren eragileei dagokie. Agerian geratu da enpresek arriskuen kudeaketan eta enpresa-negozioaren jarraikortasun-planetan enfasia jartzeak berebiziko garrantzia duela hornidura-kate erresiliente eta fidagarriagoak izateko (Kamp, 2021, zenbaki honetan): informazioa denbora errealean etengabe jasotzea eta hornidura-kateari arreta jartzea funtsezkoak dira horretarako.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak, 2020ko maiatzean, zenbaki hau lantzea erabaki zuenean, konfinamenduan geunden bete-betean, eta gai sanitarioak zuen lehentasun guztia. Eusko Jaurlaritzaren ekonomia- eta aurrekontu-ahaleginak betebeharrak eta beharrezkoak sanitarioekin lerrotatu eta horietara bideratu behar izan ziren osoki, prebentzio- eta geldiarazte-neurrien bitartez. Aldi berean, ekonomia hibernazio-egoera batera sartzen zen bitartean, ekonomiari eta zergei buruzko askotariko neurriak jarri ziren martxan ekonomia-jarduera irauterazteko, hala aurrez aurrekoa nola Internet bidezkoa, deseskalada-prozesuaren zain, orduan ekonomia berpizteko.

Monografiko hau hamaika lanek osatzen dute (bederatzi artikuluk eta bi saiakera laburrek), eta COVID-19aren fenomenoak, ekonomian dituen efektuak eta sustatutako neurriak aztertu dituzte, horietako batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan. Zenbaki hau jokabidearen ekonomiari buruzko mikroekonomiaren eremuko lan batekin hasten da, alegia, nola faktore psikologikoen, sozialek edo kognitiboen eragiten dieten gizabanakoek hartutako erabaki ekonomikoak. Hala, **David Jimenez-Gomezek** eta **José María Abellán**ek haxe aztertu dute: pandemiari buruzko erabakiak hartzeko orduan eta COVID-19 pandemiaren aurkako osasun publikoko politiketan, inpaktu handiena izan dezaketenean joerak (kasu honetan, gehiegizko baikortasuna). Azaldu dituzte jokabidearen ekonomiak, pandemia baino lehen eta ondoren, jokabideari eragiteko izan dituen askotariko kanalak, eta moduak proposatu dituzte jokabidearen ekonomia horrek gaixotasun honen kontra borrokatzen lagundu dezan, «bultzada» txikiak ematearen eta txertaketa areagotzearen bitartez.

Sarrera-lan horren ondoren, artikuluen lehen multzo bat hasten da, pandemiaren eraginez sortutako ekonomia- eta gizarte-inpaktuak aztertzen dituenak. Hala, **Beatriz González López-Valcárcel**ek eta **Jaime Pinilla**k, pandemiak ekonomiaren

gainean epe laburrera izan dituen efektuen ondoren, Espainiako egungo ekonomia-egoera deskribatu dute, baita efektu horiek arintzeko martxan jarritako erreskate-funtsak eta beste gobernu-neurri batzuk ere. Gainera, puntu hauexek aztertu eta baloratu dituzte: txertaketaren Europako estrategia, aldi berean osasunaren politika eta ekonomia dena, eta sistema sanitarioan beharrezkoak diren aldaketak, Europaren susperraldirako Next Generation programaren barruan. Bukatzeko, artikulua aztertu ditu COVID-19ak pertsonen arteko desigaltasunetan, hala osasunean nola ekonomian, dituen zuzeneko zein zeharkako efektuak.

Lan-multzo horretako bigarren lan bat **Carlos Álvarez, Inmaculada Cebrián, Begoña Cueto, María A. Davia, Nuria Legazpe** eta **Gloria Morenok** eskaini dute; bertan, konfinamenduaren eraginez sortu den ekonomia-krisiak ekarri dituen lan-ondorioak aletu dituzte. Bereziki 2020ko udaberriari erreparatu diote, urte-sasoi horretako konfinatze-aldian izan zen lan-jardueraren eta jarduera-ezaren bilakaerari. Eraitza nagusiek erakusten dutenez alde batetik, konfinamenduko jarduera-ezaren hazkundera iragankorra izan zela, eta bere onera etortzen hasi zela deseskaladarekin batera, eta, bestetik, itxialdia dakarren jarduerarik ezaren bilakaera eta geroko susperraldia langabeen profilararekin lotuta daudela (batez ere, jatorrizko produkzio-adarren banaketarekin), bai eta, neurri handi batean, konfinamendu-egoerarekin berarekin ere.

COVID-19 pandemiaren ondorioetako bat langile askok diru-sarrerara nagusiak galtzea izan da; hori dela eta, haien etxeetan ondorio finantzario larriak izan dituzte. Testuinguru horretan, **Alfonso Arellanok** eta **Noelia Cámarak** aztertu dute hezkuntzak eta finantza-sistemari buruzko pertsonen esperientziek nola eragiten duten Euskal Autonomia Erkidegoko etxeetako finantzen kalteberatasunean eta Espainiako beste bazter batzuekin aldeak ote dauden. Autoreek erakutsi dute finantzen ezagutza txikiena duten etxeek eta finantza-sistemarekin desadostasun bat izan dutenek aukera gehiago dituztela oso kalteberak izateko, eta efektuak handiagoak dira Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuan gainerakoan baino.

Laugarren eta azken lan-multzoan, **Mikel Erkorekak** COVID-19 pandemiak 2020an Euskal Autonomia Erkidegoko finantza publikoei ekarri dien zerga- eta aurrekontu-inpaktua aztertu du, eta Ekonomia Ituna arautzen duen foru finantzaketa-sistemaren jokabidea eta kaudimena ebaluatu ditu. Artikuluak ondorioztatu duenez, pandemiak nahasmendu sakonak ekarri dituen arren, bereziki hura hasi zenean, EAEko zerga-administrazioek jarraitu egin zuten beren zerga-sistemak arautzen eta kudeatzen, zergadunen beharrezanean erantzuten eta, zergatako diru-sarreraren bitartez, administrazio zentralari kupo ordaintzen eta EAEko sektore publikoaren finantzaketa-beharrezanean erantzuten.

Bigarren multzoan, pandemiaren ondorioei erantzuteko ezarritako askotariko neurriak aztertzen dituzten lanak biltzen dira. Koreatik lan bat heldu zaigu, eta bertan **Kisu Kwon, Inkyo Cheong, Kyoungseo Hong, Valijon Turakulov** eta **Jinjin Mouk** kontatu digute Hego Koreak pandemiari nola aurre egin zion eta Koreako gobernuak nolako neurriak hartu zituen hari kontra egiteko eta zabal zedin eragoz-

teko. Kasu hori adierazgarria da, Asiako herrialde hori arrakasta-kasu bat eta erreferentziazkoa baita, infektatu eta hildako gutxi izan zituelako (2.400 pertsona inguru, 51,3 milioiko biztanleria batean). Bada, zenbait autoreren arabera, horren arrazoia 3T delakoa azkar eta sistematikoki aplikatzea izan da (3T deitua ingelesezko siglen arabera: testatu, jarraipena egin eta tratatu).

José Ignacio Jacak eta **Iñigo Saizabalek** Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek, batez ere Eusko Jaurlaritzak, COVID-19aren krisiari aurre egiteko martxan jarritako neurri ekonomikoak deskribatu dituzte. Hasieratik bertatik, Eusko Jaurlaritzak neurri-sorta zabal bat jarri zuen indarrean osasunaren, ETEen eta autonomoen, hezkuntzaren, gizarte-politiken, turismoaren, merkataritzaren eta kulturaren arloetan, gero eta beharrian handiagoei aurre egiteko eta eragindako ekonomiaren hondamena geldiarazteko, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak sendotuz, enpresen funtzionamendua likidezia eta kaudimena errazteko neurrien bidez lagunduz eta familia-errentak babestuz. Halaber, lanaren bigarren zatian, koiunturazko neurri horiek MRR mekanismoko europar funtsekin uztartu dira. Funtse horiek, Next Generation ekimenaren bitartez, krisitik lasterrago irtetera eta ekonomia eraldatzera bideratuta daude, hura albait produktiboena, ekologikoena, digitalena eta sozialki erresilienteena egiteko.

Bestalde, **Bart Kampek** globalki nazioartekotutako enpresen hornidura-kateetan sortu diren arazoak deskribatu ditu, artean amaitu ez direnak. Autoreak aztertu egin ditu pandemiaren aldiaren izandako hornidura-kateetako etenen azpiko arazoak, eta horiei aurre egiteko jarraitu diren askotariko estrategiak, bereziki EAEko enpresetan. Autorearen arabera, ez da espero ekonomiaren globalizazio-prozesua haustea, baina bai moldaketa batzuk multinazionalak eta hornidura-kateek beren negozio globalak antolatzeke dituzten moduetan. Nazioartekotutako enpresek enfasi handiagoa jarriko dute arriskuen kudeaketan eta bere egingo dituzte forma digital aurreratuak merkaturako informazioa biltzeko eta hornidura-kateari etengabe arreta jartzeko. Epe luzeagora, autorearen iritziz, gero eta garrantzitsuagoa izango da tokiko presentzia, eta multinazionalen atzerriko inbertsioak gero eta gehiago bideratuko dira merkatuak bilatzera, efizientzia lortzera baino gehiago. Bada, hornidura-kate globalak gero eta gehiago antolatuko dira eskualdeen arabera, eta horrek aukera handiagoak sor diezazkieke eskualde arteko hornitzaileei, sortzen diren arrakalak aprobetxatzeko gai direnei.

Lan-multzo hau amaitzeko, **Luz Sánchezek** merkataritza-zuzenbidearen eta patenteen testuinguruan dagoen kinka eta eztabaida landu ditu. Batetik, esaten da txertoak munduko biztanleria osoak eskura izan beharko lukeen ondasuna direla eta, bestetik, farmako-enpresek eskubidea dutela inbertsioen truke errendimendu ekonomikoa eskuratzeko. Eztabaida bereziki garrantzitsua da egungo kinkan, ohiko argumentuei premia larri bat gehitu zaielako: COVID-19 biruserako txertoak mundu guztiari albait lasterren, justuen eta era bidezkoenean helaraztea. Autoreak antzeko konnotazioak dituzten aurreko esperientziak berrikusi ditu, eta aztertu ere egin ditu inplikaturako eragileen arteko tentsioak baretzeko dauden lege-instrumen-

tuak. Giltzarria da maila guztietako lankidetzaz sendotzea eta, horretan oinarrituz, hauxe da funtsezko puntua: patenteei buruzko zuzenbideak eskaintzen dituen eskubideak ez daitezela izan eragozpen txertoak, tratamenduak, diagnostikoak eta ekipamendu medikoa ekoiztu eta banatzeko, hori beharrezkoa baita osasun publikoaren munduko beharrazane aurre egiteko.

Lan horren haritik, **Enrique Feásen** saiakera laburrak EBrako proposatutako europar autonomia estrategikoaren kontzeptua proposatu du pandemian sortzen diren gobernantza-arazoei aurre egiteko, eta azaldu du Europako txerto-hornidura eta, gero, kanpoaldearen gehiegizko mendekotasuna gutxitzen duen industria-politika bat (betiere esportazioei eutsiz) autonomia estrategiko irekiaren adibide egokia izan daitekeela. Haren iritziz, pandemiatik sortutako krisiak eta «txertoen gerrak» bi lezio interesgarri ateratzeko balio du Europako integrazioaren aldetik: lehenik, krisia dagoenean, soluzio instituzionalak beti dira askoz azkarragoak eta efikazagoak gobernu artekoak baino; bigarrenik, industria- eta merkataritza-politikaren eremuan, giltzarria da Europaren mendekotasun arriskutsuak gainetik kentzea eta hornitzaileak dibertsifikatzea, uneoro merkataritzaren fluxuari eutsiz, Europako eta munduko balio-kateek operatibo jarrai dezaten.

Bigarren saiakera laburrean, **Antonio de Leceak** azaldu eta babestu du lankidetzaz bidezko erantzunak garrantzitsuagoak direla kanpoko efektuei aurre egiteko Europako gobernantzaren barruan. European, gobernuak krisiari eman zizkioten lehen-dabiziko erantzunak aldebakarrekoak izan ziren, baina ondorio kaltegarriak zituztela argiago geratu ahala, gobernuak azkenean onartu egin zuten kudeaketa-instrumentu komunak martxan jarri eta erabiltzea; izan ere, lehenago baztertu egin zituzten eta, alde aurretik indarrean egon izan balira, giza bizitza eta finantza-kostu ugari salbatuko zituzten. Autoreak amaitu du adieraziz krisian hartutako eskarmen-tua adierazgarria dela EBren garapen instituzionalerako, gobernantza globalerako eta estatu kideen maila askotako gobernantza-markoetarako.

ERREFERENTZIAK

- BALLUERKA N., *et al.* (2020): Las consecuencias psicológicas de la Covid-19 y el confinamiento. Informe de investigación. Eskuragai: https://www.ub.edu/web/ub/ca/menu_eines/noticias/docs/Consecuencias_psicologicas_COVID-19.pdf
- CEPR PRESS (2020): Mitigating the COVID Economic Crisis: Act Fast and Do Whatever It Takes. VoxEu.org Book.
- OECD (2021): Government at a Glance 2021, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/1c258f55-en>.
- THE ECONOMIST (2021): «Millions of lives depend on how the pandemic ends», 16 urriak 2021.